

## **LEZO / Ines Bengoa ipuinak kontatzen ariko da gaur Andreone liburutegian**

**Arratsaldean izango da lau eta zazpi urte bitarteko zuzendutako hurrei ipuin saioa, 18:15etik aurrera**

E. GARTZIA

Asteazkenero bezala, gaur arratsaldean ere ipuin kontalari bat ariko da Andreone liburutegian. Gaur arratsaldean Ines Bengoaren txanda izango da eta Karabi Karaba izeneko ipuin sorta kontatuko die bertara hurbiltzen diren hurrei. Liburutegiko beheko solairuan kontatuko ditu ipuinak, 18:15etik aurrera.

Ines Bengoa Lizarrakoa da (Nafarroa), eta 2002. urtetik darama ipuinak kontatzen. Karabi Karaba bere laugarren ipuin ikuskizuna da. Aurrekoak Credula Croa (2003, Nafarroako Antzerki Eskola), Mundutik ipuinez ipuin (2007, Caracol Miricol) eta Herio Azeri Hori (2008, Nafarroako Antzerki Eskola).

### **Hurrengo asteazkenean, Maite Franko**

Gaur zortzi, berriz, Maite Franko irundarra ariko da ipuinak kontatzen Andreonen. Frankoren ikuskizunak Kokoriko, zu bai tontolapiko du izena. Urriaren 4an hasi zen ipuin kontalarien zikloa Lezon. Asteazkenero gerturatzen da kontalari bat Udal Liburutegiko beheko solairura, 18:15etik aurrera. Ipuinak lau eta zazpi urte bitartean dituzten hurrei daude zuzenduta.